

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

3/2020 Foru Agindua, urtarrilaren 10ekoa, interes publikoa aitortzen diona Guardiako 220KV azpiestazioan, Guardiako udalerriko lurzoru urbanizaezinean, 19 poligonoko 351 lurzatian, Lacerado aurkintzan, Red Eléctrica de España SAUk sustatutako errezel etxola berria eraikitzeko proiektuari

Red Eléctrica de España SAU (REE) enpresak Guardiako Udalari obra lizentzia eskatu dio errezel etxola berria eraikitzeko, Guardiako 220KV azpiestazioan, 19 poligonoko 351 lurzatian, Lacerado aurkintzan, lurzoru urbanizaezinean. Nola oraingo etxolan lekurik ez dagoen, 2,60 m-ko barneko zabalera eta 7,40 x 3,00 m-ko kanpoko dimentsioak dituen etxola berri bat eraiki nahi da. Han, Logroñoeko linea posizioko errezel bastidorea, ServIP armairua eta zerbitzu osagarrien koadroa egongo dira. Aurreikusi denez, barneko espazioan, REEren gainerako posizioen errezel bastidoreak jarri ahal izango dira, berritzeak egin ahala, bai eta PDBa eta transformadorearen etorkizuneko posizioa ere. Etxola aurrefabrikatua izango da, hormigoï armatuzko panelekin eta estalki lauarekin. Zolan hainbat kanal eraikiko dira kableak pasatzeko, eta zimenduak gainazalekoak izango dira, hormigoï armatuzko zapata luze baten bidez, garbiketa hormigoizko ohearen gainean bermatuta. Etxola azpiestazioaren esparruaren barruan eraikiko da; beraz, aurreikustekoa da ez dela egin beharko lur mugimendurik.

Guardiako Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientean dago proiektu teknikoa, baita udal arkitektoak eginiko txostena ere, zeinetan adierazten baita instalazioak kokaleku izango duen lurzatia lurzoru urbanizaezin sailkatutako eta nekazaritza intereseko babes zona kalifikatutako lursailean daudela, udalerrian indarrean dauden arau subsidiarioen arabera. Arau horren 113. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, erabilera publikoko eta gizarte intereseko erabilera, instalazio eta eraikinak baimentzen dira.

OINARRI JURIDIKOAK

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta Sailaren Egitura Organiko eta Funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatzen duenez, lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legediak edo lurralde antolamenduak interes publikoa aitortzen dien zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez izendatu behar baititu interes publikoko.

Azaroaren 21eko 328/2019 Foru Aginduaren bidez, xedatu zen espedienteari hasierako onepena ematea eta hura 20 egunez jendaurrean edukitzeko aldia irekitzea, ALHAOn argitaratzen zenetik aurrera. Espedientea, hain zuzen ere, 2019ko abenduaren 2ko ALHAOn (139. zenbakia) argitaratu zen, eta zen inolako alegaziorik aurkeztu horretarako eman zen epean.

Interes publikoa aitortzeko oinarria da Sektore Elektrikoaren abenduaren 26ko 24/2013 Legea, zeinak 1. artikuluan xedatzen baitu legearen xedea dela sektore hori arautzea, energia elektrikoaren hornidura bermatzeko eta kontsumitzaileen beharretara egokitzeko, eta berariaz jasotzen du 2. artikuluan energia elektriko hornitzea interes ekonomiko orokorreko zerbitzua

dela. 7. artikulua horniduraren bermea arautzen du, eta xedatzen du kontsumitzaile guztiek eskubidea izango dutela energia elektrikoaren garraio eta banaketa sareetarako sarbidea eta konexioa izateko Espainia osoan, lege horretan bertan ezarritako baldintzetan.

Halaber, 5. artikuluan xedatzen da hornidura elektrikoari loturiko jardueretarako azpiegitura propioak onura publikokotzat jotzen dituela lege horrek, eta sistema orokortzat hartuko direla; eta 54. artikulua, nahitaezko desjabetzearen ondorioei dagokienez, onura publikokotzat jotzen ditu energia elektrikoa sortu, garraiatu eta banatzeko instalazio elektrikoak, eta halakotzat hartzen ditu, orobat, arrazoi teknologikoen, ingurumen arrazoien edo energia eraginkortasunaren ondoriozko ordezteak edo aldaketak.

Aurkeztutako proiektuaren arabera, azpiegiturak berak dituen ezaugarriengatik jarri behar da landa lurretan.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Interes publikoa adieraztea, Guardiako 220KV azpiestazioan, Guardiako udalerriko lurzoru urbanizaezinean, 19 poligonoko 351 lurzatian, Lacerado aurkintzan, Red Eléctrica de España SAUk sustatutako errezel etxola berria eraikitzeako proiektuarena, bat etorritz Hirigintza eta Lurzoruaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin.

Bigarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatu baino lehenago dagokion udal baimena lortzeko betebeharra, ez eta horretarako udal erabakiaren edukia aurretik ezartzen ere.

Hirugarrena. Interes publikoa aitortzeak ez du administrazio bidea amaitzen, ez eta hark aurrera egin dezan eragozten ere. Beraz, ez dago haren aurkako errekurtsorik aurkezterik. Udala da dagokion administrazio egintza emateko eskumena duen organoa, eta hark baimena emateko edo ukatzeko hartzen duen ebazpenaren aurka bakarrik jarri ahal izango da errekurtsua.

Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 10a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO